

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 326/2017 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, aldatzen duena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua, zeinaren bidez 198 eredua onartzen baita, finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena egitekoa, baita horren barruko orrien ordezkari ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere

Abenduaren 23ko 19/2016 Foru Arauak, Arabako zerga sistema osatzen duten hainbat foru arau aldatzekoak, aldatu egin du ekarpenak itzulita kapitala murriztetik sortzen diren ondare irabazi eta kapital higikorren etekinengatik zerga ordaintzeko araubidea, kotizazio ofizialean onartuta ez dauden balioak direnean.

Aurretik esandakoaren ondorioz, informazioa emateko betebeharrak berri bat ezarri da kapitala murrizteko eragiketa horiek burutzen dituzten entitateentzako. Betebeharrak hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiak, abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, garatzen du, 123. artikuluko 16. idatz zatian.

Aurrekoarekin bat etorriz, egokitu egin behar da 198 eredua, finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena egitekoa, informazio betebeharrak berria jasotzeko.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hirugarren idatz zatiko Bat zenbakiari k) letra gehitzen zaio; hona hemen haren edukia:

“k) Ekarpenak itzulita kapitala murrizteko eragiketak edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauak, finantza-tresnen merkatuei buruzkoak, zehazten dituen balore merkatu arautuetako batean negoziatzeko onartzen ez diren eta sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetzaren adierazgarri diren baloreen jaulkipen saria banatzeko eragiketak egiten dituzten entitateak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiak, abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 78. artikuluko i) letran xedatutakoaren arabera atxikipenari lotuta ez dauden eragiketei buruz, pertsona fisikoen alde eginak baldin badira.

Hala ere, entitate horiek ez dute nahitaez aurkeztu beharko agindu honetan araututako eredua, baldin eragiketa horietan tartean badago abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuak, finantza kontuen, eragiketen eta aktiboen zein atzerriko ondasun eta eskubideen berri emateko beharra arautzen duenak, 7. artikuluan aipatzen duen informazio aitortpena aurkeztera behartuta dauden subjektuetakoren bat.”

Bigarrena. Aldatu egin da Laugarren idatz zatiko Bat zenbakia. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

“Bat. Aurreko Hirugarren idatz zatiko Bat zenbakiko a) – h) letretan eta Bi eta Hiru zenbakietan aipatzen den informazioa ematera behartuta dauden eragiketetan esku hartzen duten

subjektuen identifikazio osoa eskuratu beharko diote zerga administrazioari, agindu honen eranskinetan jasotzen diren zehaztasunen arabera, honako hauek adieraziz: zer izaerarekin esku hartzen duten, haien izen-abizenak edo sozietate izena, haien helbideari dagokion probintzia-estatutu kodea eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baita ere efektu publiko, balore, titulu eta aktiboen mota eta kopurua eta eragiketa bakoitzaren zenbatekoa eta data.

Aurreko Hirugarren idatz zatiko Bat zenbakiko i) letran aipatzen den informazioa ematera behartuta daudenek honako hauek eskuratu beharko dizkiote zerga administrazioari, agindu honen eranskinetan jasotzen diren zehaztasunen arabera: lehentasunezko partaidetzetatik edo bestelako zor tresnetatik sortutako etekin hartzailerearen nortasuna eta bere egoitza duen estatua, zergaldi bakoitzean jasotako etekin zenbatekoa eta baloreen identifikazioa. Etekinak hirugarren baten kontura jasotzen direnean, horren nortasuna eta bere egoitza duen estatua ere eman beharko dira.

Aurreko Hirugarren idatz zatiko Bat zenbakiko j) letran aipatzen den informazioa ematera behartuta daudenek, zenbaki honetako lehenengo paragrafoan aurreikusten den informazioarekin batera, honako informazio hau eskuratu beharko diote zerga administrazioari, agindu honen eranskinetan jasotzen diren zehaztasunen arabera: maileguaren hasiera eta epemuga egunak, maileguaren eragiketa zenbakia, mailegu emailearentzako ordainsaria, mailegatutako baloreetatik eratorritako eskubideen konpentsazioak eta emandako bermeak. Mailegu emaitzari ordainsari edo konpentsazio moduan diru kopururen bat ordaintzen zaion ekitaldiari edo ekitaldiei dagokien urteko aitortuenean aurkeztu beharko da informazio hori.

Aurreko Hirugarren idatz zatiko Bat zenbakiko k) letran aipatzen den informazioa ematera behartuta daudenek honako informazio hau eskuratu beharko diote zerga administrazioari, agindu honen eranskinetan jasotzen diren zehaztasunen arabera: eragiketa horien ondorioz edozein diru kopuru, ondasun edo eskubide jasotzen duten bazkide edo partaideen identifikazio osoa, barne direla haien identifikazio fiskaleko zenbakia eta entitate aitortzailean duten partaidetza ehunekoa; murrizketak eragindako akzio edo partaidetzen edo, jaulkipen primaren banaketa izatekotan, aitortuak dituen azkio edo partaidetzen identifikazio osoa, barne direla haien mota, kopurua, balio nominala eta, hala badagokio, identifikazio kodea; data eta eragiketetan jasotako ondasunak, eskubideak edo diru kopurua; eta kapital murrizketak eragindako akzio edo partaidetzei edo, jaulkipen primaren banaketa izatekotan, aitortuak dituen azkio edo partaidetzei dagozkien funts propioen zenbatekoa, kapital murrizketaren data edo jaulkipen primaren banaketaren data baino lehen itxitako azken ekitaldikoa, funts propio horien barnean dauden erreserbetatik etorrira eragiketaren data baino lehen banatutako mozkinen zenbatekoa kenduta, eta funts propio horien barnean dauden eta lege xedaezinak diren erreserben zenbatekoa ere kenduta.”

Hirugarrena. Aldatu egiten da “ERAGIKETA GAKOA” eremua, 134 posizioa duena II. eranskinetan jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

ZURIUNEA	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
134	Alfabetikoa	<p>ERAGIKETAREN GAKOA</p> <p>A Eskubideak eskuratzea edo eratzea.</p> <p>B Burtsa-eragiketa bereziei, balore kotizatuen burtsatik kanpoko eskualdaketei eta batez besteko aldaketa haztatuei buruzko irailaren 27ko 1416/1991 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako eragiketen bidez, eskubideak adjudikatzea edo eratzea.</p> <p>C Trukatzea.</p> <p>D Bihurtzea.</p> <p>E Eskubideak ezereztea edo azkentzea.</p> <p>F Jaulkipen-prima itzultzea. Eragiketa mota honetan gako hau jarriko da baldin eta ez badagokio «H» gakoa jartzea.</p> <p>G Kapital-murritzeta. Eragiketa mota honetan gako hau jarriko da baldin eta ez badagokio «I» gakoa jartzea.</p> <p>H Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean emandako 2004/39/EE Zuzentarauan araututako merkatuen artean negoziatzeko ezeinetan onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetza ordezkatzan duten baloreen jaulkipen-prima itzultzea.</p> <p>I Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean emandako 2004/39/EE Zuzentarauan araututako merkatuen artean negoziatzeko ezeinetan onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetza ordezkatzan duten baloreen ekarpenak itzulita kapitala murriztea.</p> <p>O 7/2014 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian arautzen diren balore-maileguak.</p> <p>P Balore-mailegua eratzea.</p> <p>Q Balore-mailegua azkentzea.</p> <p>S Harpidetza egitea.</p> <p>T Eskualdaketa, amortizazioa edo diru-itzulketa egitea.</p> <p>U Burtsa-eragiketa bereziei, balore kotizatuen burtsatik kanpoko eskualdaketei eta batez besteko aldaketa haztatuei buruzko irailaren 27ko 1416/1991 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako eragiketen bidez, eskualdaketa, amortizazioa edo diru-itzulketa egitea.</p> <p>V Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13eko 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluan bat-egite, zatitze, aktibo-ekarpen eta balore-trukeetarako ezarritako araubide bereziaren babesean baloreak trukitzea.</p> <p>W Beste eragiketa batzuk.</p> <p>Baloreak bihurtu edo trukatzuz gero, bi eragiketa aitortuko dira: baloreak bihurtu edo trukatzeari dagokiona eta harpidetzeari dagokiona.</p>

Laugarrena. Aldatu egiten da "ERAGIKETAREN ZENBATEKOA" eremua, 150-164 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
150-164	Zenbakizkoa	<p>ERAGIKETAREN ZENBATEKOA</p> <p>Eragiketaren zenbateko osoa jasoko da, eurotan edo, dibisak erabilitako eragiketetan, haren kontrabalioa adieraziko da.</p> <p>248 eremuaren posizioak (GAUZAZKO ORDAINKETA) edukirik badu, jasotako ondasun edo eskubideen merkatu-balio normala jarriko da.</p> <p>Eragiketari lotutako aitortu batzuk direnean, haietariko bakoitzari esleituko zaio bere partaidetzaren portzentajearen arabera egotzi behar zaion zenbateko osoa.</p> <p>Balore-maileguaren kasuan, haien balioa jasoko da, Sozietateen gaineko Zergaren araudiaren edo, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudiaren arabera.</p> <p>«ERAGIKETAREN GAKOA» eremuan «T» edo «BALOREAREN GAKOA» eremuan «B» edo «C» (2 motako erregistroko 134 posizioa) jarri bada eta «ETEKINEN ZENBATEKOA» eremua (2 motako erregistroko 165-176 posizioak) zero ez bada, eremu honetan zeroak jarriko dira.</p> <p>Eremu honetan azpiero bi daude:</p> <p>150-162 Eragiketaren guztizko zenbatekoaren zati osoa.</p> <p>163-164 Eragiketaren guztizko zenbatekoaren zati hamartarra.</p>

Bosgarrena. Aldatu egiten da "AITORTUAREN GAKOA" eremua, 193 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
193	Alfabetikoa	<p>AITORTUAREN GAKOA</p> <p>Gako hauetariko bat jarri behar da:</p> <p>B Etekinen jasotzailea, lehentasunezko partaidetzak eta bestelako zor-tresnak direnean.</p> <p>C Hirugarrena, zeinaren kontura jasotzen baitira lehentasunezko partaidetzen eta bestelako zor-tresnen etekinak.</p> <p>E Kontrako alderdi nagusia, likidazio prozesuan urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera parte hartzen badu.</p> <p>N Jabe soila.</p> <p>P Mailegu-emailea, balore-maileguen kasuan. Bereziki, gako hau jarriko da baldin eta balore-maileguaren eragiketarako, «O» bat jarri bada «ERAGIKETAREN GAKOA» eremuan (2 motako erregistroko 134 posizioa).</p> <p>Q Mailegu-hartzailea, balore-maileguen kasuan.</p> <p>T Titularra.</p> <p>U Gozameduna.</p> <p>Lehentasunezko partaidetzen eta bestelako zor-tresnen kasuan, dagozkien «B» edo «C» gakoak adierazi behar dira soilik.</p>

Seigarrena. Aldatu egiten da "KONPENTSAZIOAK" eremua, 224-235 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan). Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
224-235	Zenbakizkoa	<p>KONPENTSAZIOEN ZENBATEKOA</p> <p>12 posizioko zenbakizko eremua.</p> <p>Balore-maleguen kasuan «O» bat jarri bada «ERAGIKETAREN GAKOA» eremuan (2 motako erregistroko 134 posizioa), konpentsazioen zenbatekoa jarriko da eremu horretan.</p> <p>«Eragiketaren gako» eremuaren (2 motako erregistroko 134 posizioa) gainerako gakoetan, urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 81. artikulutik 84. artikulura ezarritako balore negoziagarriak likidatzeko prozeduraren ondoriozko konpentsazio eta doikuntzen zenbatekoa jarriko da.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <p>224-233 Konpentsazioen zenbatekoaren zati osoa.</p> <p>234-235 Konpentsazioen zenbatekoaren zati hamartarra.</p>

Zazpigarrena. "GAUZATAN ORDAINTZEA" eremu berria gehitzen da, 248 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan), eta eduki hau duena:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
248	Alfabetikoa	<p>GAUZAZKO ORDAINKETA</p> <p>Aitortuaren 2 motako erregistroko 134 posizioan (ERAGIKETAREN GAKOA) «H» edo «I» gakoia betetzen bada eta eragiketa gauzaz ordaindu bada, «X» bat jarriko da. Gainerako kasuetan, eremu zuriunez beteko da.</p> <p>Aitortu beraren kasuan diruzko zein gauzazko eragiketak aitortzen badira, haietariko bakoitza aitortuen erregistro independenteetan adieraziko da.</p>

Zortzigarrena. "JASOTAKO ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTA" eremu berria gehitzen da, 249 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan), eta eduki hau duena:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
249	Zenbakizkoa	<p>JASOTAKO ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTA</p> <p>Aitortuaren 2 motako erregistroko 248 eremuaren posizioak (GAUZAZKO ORDAINKETA) edukia badu, hauek adieraziko dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1 Ondasun higiezinak. 2 Ondasun higiezinen gaineko eskubide errealak. 3 Ibilgailuak, itsasontziak edo aireontziak. 4 Beste ondasun edo eskubide batzuk.

Bederatzigarrena. "HIGIEZINAREN KOKALEKUA" eremu berria gehitzen da, 250 posizioa duena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan), eta eduki hau duena:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
250	Zenbakizkoa	<p>HIGIEZINAREN KOKALEKUA</p> <p>Aitortuaren 2 motako erregistroko 249 posizioan (JASOTAKO ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTA) «1» edo «2» gakoa bete bada, gako hauen artean higiezinari dagokiona jarriko da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1 Katastroko erreferentzia duen higiezina, Euskadin eta Nafarroan izan ezik Espainiako lurraldearen edozein tokitan kokatua. 2 Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen higiezina. 3 Nafarroako Foru Erkidegoan kokatuta dagoen higiezina. 4 Aurreko lekuetako edozeinetan dagoen higiezina, baina katastroko erreferentziarik edo zenbaki finkorik ez duena. 5 Atzerrian kokatutako higiezina.

Hamargarrena. "KATASTRO ERREFERENTZIA" eremu berria gehitzen da, 251-270 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan), eta eduki hau duena:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
251-270	Alfanumerikoa	<p>KATASTROKO ERREFERENTZIA</p> <p>Aitortuaren 2 motako erregistroko 250 eremuaren posizioan (HIGIEZINAREN KOKALEKUA) «1», «2» edo «3» gakoa bete bada, dagokion higiezinaren katastroko erreferentzia edo zenbaki finkoa jarriko da (kasuaren arabera).</p>

Hamaikagarrena. "ENTITATE AITORTZAILEAN DUEN PARTAIDETZA EHUNEKOA" eremu berria gehitzen da, 271-275 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan), eta eduki hau duena:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
271-275	Zenbakizkoa	<p>ERAKUNDE AITORTZAILEAREN PARTAIDETZAREN PORTZENTAJEA</p> <p>2 motako erregistroaren 134 posizioan (ERAGIKETAREN GAKOA) «H» edo «I» gakoa betetzen bada, kapitala murriztu edo jaulkipen-prima itzultzen duen entitatean aitortuan duen partaidetzaren portzentajea jarriko da.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <ol style="list-style-type: none"> 271-273 Portzentajearen zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira. 274-275 Portzentajearen zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

Hamabigarrena. "FUNTS PROPIOEN ZENBATEKOA" eremu berria gehitzen da, 276-286 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan), eta eduki hau duena:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
276-286	Alfanumerikoa	<p>FUNTS PROPIOEN ZENBATEKOA</p> <p>2 motako erregistroaren 134 posizioan (ERAGIKETAREN GAKOA) «H» edo «I» gakoa betetzen bada, kapital-murrizketak ukituta dauden edo aitortuak jaulkipen-primaren banaketa dela-eta dituen akzio edo partaidetzei dagozkien funts propioen zenbatekoa jarriko da; kapital-murrizketaren edo jaulkipen-primaren banaketaren dataren aurretik itxitako azken ekitaldiari dagozkion zenbatekoa izango da.</p> <p>276 ZEINUA. Alfabetikoa. Lehen azaldutako zenbatekoa negatiboa bada, "N" bat jarri behar da. Bestela, zuriunez bete behar da.</p> <p>277-286 ZENBATEKOA. Aurretik deskribatutako zenbatekoa jarri behar da, koma hamartarrik gabe.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>277-284 Kapital-murrizketak ukituta dauden edo aitortuak jaulkipen-primaren banaketa dela-eta dituen akzio edo partaidetzei dagozkien funts propioen zenbatekoaren zati osoa.</p> <p>285-286 Kapital-murrizketak ukituta dauden edo aitortuak jaulkipen-primaren banaketa dela-eta dituen akzio edo partaidetzei dagozkien funts propioen zenbatekoaren zati hamartarra.</p>

Hamahirugarrena. "LEHENAGO BANATUTAKO MOZKINAK" eremu berria gehitzen da, 287-297 posizioak dituena II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan), eta eduki hau duena:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
287-297	Zenbakizkoa	<p>AURRETIK BANATUTAKO MOZKINAK</p> <p>2 motako erregistroaren 134 posizioan (ERAGIKETAREN GAKOA) «H» edo «I» gakoa betetzen bada, aitortuaren akzio edo partaidetzen funts propioetan jasotako erreserbetatik datozen eta kapital murrizteko edo jaulkipen-primaren banatzeko eragiketaren dataren aurretik banatu diren mozkinen zenbatekoa jarriko da.</p> <p>287-297 ZENBATEKOA. Aurretik deskribatutako zenbatekoa jarri behar da, koma hamartarrik gabe.</p> <p>Eremu honetan azpieren bi daude:</p> <p>287-295 Zenbatekoaren zati osoa..</p> <p>296-297 Zenbatekoaren zati hamartarra.</p>

Hamalaugarrena. "ERRESERBA XEDAEZINAK" eremu berria gehitzen da, 298-308 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroan), eta eduki hau duena:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
298-308	Zenbakizkoa	<p>ERRESERBA BALIAEZINAK</p> <p>2 motako erregistroaren 134 posizioan (ERAGIKETAREN GAKOA) «H» edo «I» gakoak betetzen bada, aitortuaren 2 motako erregistroko 276-286 posizioetan («FUNTS PROPIOEN ZENBATEKOA» eremuan) adierazitako funts propioen zenbatekoan jaso eta aitortuari dagozkion akzioak edo partaidetzak eskuratu direnetik sortutako erreserba baliaezinen zenbatekoa jarriko da.</p> <p>298-308 ZENBATEKOA. Aurretik deskribatutako zenbatekoa jarri behar da, koma hamartarrik gabe.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <p>298-306 Zenbatekoaren zati osoa.</p> <p>307-308 Zenbatekoaren zati hamartarra.</p>

Hamabosgarrena. 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroko) 248-250 posizioak ("ZURIUNEAK") 309-500 posizioetara ("ZURIUNEAK") aldatzen dira. 1 erregistro motako (aitortzailearen erregistroko) 198-237 posizioak ("ZURIUNEAK") 198-487 posizioetara ("ZURIUNEAK") aldatzen dira, eta ZIGILU ELEKTRONIKOA 238-250 posizioetatik 488-500 posizioetara aldatzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera 2016ko ekitaldiaren informazioarekin aurkeztu behar diren aitortuarenei aplikatuko zaie lehenengo aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 1a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ